ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2022ko urtarrilaren 26a, asteazkena • 11 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## ASPARRENEKO UDALA

**Asparreneko kontzejuetako hainbat zerbitzu kudeatzeko ardura ematea**

Udal honek, Udalbatzak 2022ko urtarrilaren 13an egindako ohiko osoko bilkuran hartutako erabaki bidez, ura edangarri bihurtzeko zerbitzuaren kudeaketa-gomendioa onartu du 2022ko ekitaldirako. Kudeaketa-gomendio horretan sartzen dira kloroa hornitzea eta egun instalatuta dauden kloradoreak mantentzea, ura zaintzeko eta kontrolatzeko unitateak kudeatzea, argiteria publikoaren zerbitzua, errepideak neguan garbitzeko zerbitzua, bideetako arekak garbitzeko zerbitzua, komunitateko konpostaje puntuen kudeaketa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean definitutako betebeharren kudeaketa.

Zerbitzu horiek kudeatzeko esleipena formalizatzeko, Asparreneko kontzejuekin lankidetza hitzarmena izenpetuko da.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 1eko 41/2015 Legearen 11.3-b artikuluan xedatutakoa betez.

Araia, 2022ko urtarrilaren 14a

*Behin-behineko alkatea*
*INMACULADA ALBIZU FUENTES*


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432


Firmante: CN=ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA - DIRECCION SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 211865
Fecha de firma: 2022.01.26 06:48:46 Z